



# ARAUDIA DURANGOKO AZOKA

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA IRIZPIDEAK  
GEREDIAGA ELKARTEA



## ARAUDIA DA!

Sarrera .....	2
XEDAPEN OROKORRAK.....	2
1.artikulua – Araudiaren xedea.....	2
2. artikulua - Titulartasuna eta antolakuntza .....	2
3. artikulua – Antolakuntzaren eskumenak .....	2
PARTE HARTZEKO BALDINTZAK .....	3
4. artikulua – Parte hartu nahi dutenen baldintzak .....	3
5.artikulua - Parte hartzeko eskaria .....	3
6. artikulua – Online dendaren antolakuntza .....	4
7. artikulua – Onartutako produktuak .....	5
7.1. liburuak eta aldizkariak.....	5
7.2. Musika. ....	5
7.3. Multimedia. ....	6
7.4. Beste batzuk. ....	6
8.artikulua - eskariei buruzko erabakia .....	6
PARTE HARTZAILEEN ESKUBIDEAK .....	6
9. artikulua - Eskubideak .....	6
PARTE HARTZAILEEN BETEBEHARRAK ETA ERANTZUNKIZUNAK.....	7
10. artikulua - Parte hartzaileen betebeharrak .....	7
11. artikulua - Erantzunkizunak.....	7
JURISDIKZIOA.....	7

# DURANGOKO AZOKA - ARAUDIA

## SARRERA

Gerediaga Elkartea 1965. urtean sortu zen, Durangaldeko eskualdearen kultura eta nortasuna finkatzeko, sustatzeko eta zaintzeko helburuz.

Helburu hori aurrera eraman ahal izateko, 1965ean Gerediaga elkarteak Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka antolatu zuen lehen aldiz, euskal gaiak lantzen zuten liburu eta disko sektoreen topaleku izan zedin eta gizarteak euskara eta euskal kultura bizitzeko aukera izan zezan.

Urteetan zehar bere helburu nagusiari eutsi dio: euskaraz egindako edo Euskal Herriari lotutako gaiak dituzten ekoizpen lanak erakusteko eta saltzeko leku izatea.

Azken urte hauetan, Durangoko Azokak, ohiko salmenta guneaz gain, euskal kulturaren hedapenerako eta sustapenerako beste gune batzuk ere garatu ditu (guneak).

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. ARTIKULUA - ARAUDIAREN XEDEA

Durangoko Azoka, Durangon (Bizkaia) urteroko maiztasunez egiten den jarduera da, euskarazko edo euskal gaiak jorratzen dituzten liburu, aldizkari, disko eta multimedia euskarrietan argitaratutako ekoizpen lanen erakusketa eta salmenta sustatzeko.

Honako araudi honek bertan parte-hartzea zehazteko helburua dauka.

### 2. ARTIKULUA - TITULARTASUNA ETA ANTOLAKUNTZA

2.1 Durangoko Azokaren titulartasuna Gerediaga Elkarteari dagokio. Elkartearen Zuzendaritza Batzordeari dagokio kudeaketarako ordezkaritza nagusia eta haren izenean elkarteko presidenteari.

2.2 Gune ezberdinen antolakuntzarako, Gerediaga Elkartek kultur eragile ezberdinen elkarlana dauka.

### 3. ARTIKULUA - ANTOLAKUNTZAREN ESKUMENAK

Gerediaga Elkarteari honako eskumenak dagozkio, Durangoko Azokaren antolatzaile modura:

- Durangoko Azokaren antolakuntzarako eta garapenerako eta araudi honen aplikaziorako beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- Azokan parte hartzeko eskarien eta espazioen esleipenari buruz ebaztea.



- Araudi honetan jasota dauden zigorrak jartzea.
- Araudi honetan jasotakoetatik sortutako beste edozein.

Gerediaga Elkartek beretzat hartzen du araudi honen artikuluen interpretazioaren gaineko azken erabakia, baita artikulua hauetan beren beregi aurreikusi gabeko balizkoetan ere.

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

### 4.ARTIKULUA – PARTE HARTU NAHI DUTENEN BALDINTZAK

Gerediaga Elkartek eskubidea izango du aurreko urteetako edizioetan araudia ez betetzea edo ordainketa ez egitea edo Azokarekiko beste zorren bat dituztenak onartzeko edo baztertzeko.

Edizio honetan, Durangoko Azokan parte hartzeko aukera bakarra dago: onlineko salmenta, durangokoazoka.eus webgunean egokituko den denda birtualaren bitartez.

Durangoko Azokan erakusmahaia eskatu ahal izango dute:

- a) Araudi honen 7. artikuluan adierazten dena betetzen duten produktuak saldu eta erakusteko gaitasuna duten enpresak (argitaletxeak, diskoetxeak, ekoizpen enpresak, banatzaileak), autoekoizleak, elkartek edo erakunde ofizialen edo beste erakunde batzuen argitalpen zerbitzuak.
- b) Aurreko puntuan aipatutakoen ordezkari izendatu direnak, berariazko baimenarekin.
- c) Gerediaga Elkartearen beren beregiko gonbidapena jasotzen duen beste edozein enpresa, elkarte, erakunde publiko, babesle edo artikulua honetan aurreikusi gabeko edozein.

Durangaldeko elkarte, erakunde eta sortzaileek tratamendu berezia izango dute, beti ere araudiko 7. artikuluan onartutako salgarrien irizpideak bete ezker. Horrelakoetan, Gerediaga Elkartearekin harremanetan jarri beharko dute.

### 5.ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO ESKARIA

Azokan parte hartzeko eskariaren aurkezpenak, araudi honen eta Gerediaga Elkartek har ditzakeen xedapenen eta akordioen beren beregiko onarpen osoa dakar berarekin.

4. artikuluan adierazten diren baldintzak betetzen dituzten eta Azokan parte hartzeko interesa duten pertsona fisikoek edo juridikoek, Durangoko Azokaren [www.durangokoazoka.eus](http://www.durangokoazoka.eus) webgunean erregistratu eta galdetegiaren bitartez eskatu beharko dute parte hartzea.

Izena emateko epea urriaren 8tik 22ra izango da (biak barne)

Epez kanpoko eskarien kasuan, Gerediaga Elkartek izango du onartu eta ez erabakitze eskumena.

## 6. ARTIKULUA – ONLINE DENDAREN ANTOLAKUNTZA

Koronabirusak eraginda bizi dugun osasun larrialdi egoerak mugak ekarri ditu Durangoko Azokaren antolakuntzan. Horregatik, Gerediaga Elkarreak 2020ko argitalpenekin eta beste urte batzuetako ekoizpenaren zati bat jasoko duen denda birtuala antolatuko du.

Antolakuntza arduratuko da salmentarako plataformaren diseinuaz, eskariak kudeatzeaz eta atarian egindako erosketen banaketaz.

### **Salgai dagoan katalogoari buruzko informazioa**

Partehartzaileak salgai izango dituen produktuei buruzko datuak eman beharko ditu, eroslea asebetetzeko antolakuntzak eskatuko dion informazio zehatza bideratuz..

Beharrezkoa den informazio guztia ez duten produktuak ez dira salgai ipiniko.

### **Salgai jarri daitezkeen produktuen kopurua**

2020an argitaratutako produktuak salgai jarriko ditu partehartzaileak eta funtsaren zati bat hurrengo irizpideak beteta:

- Liburuak:
  - Aurreko edizioan erakusmahai 1 edo 2 izan zutenek, 2020ko izenburu guztiak + funtsetik 20 izenburu gehienez.
  - Aurreko edizioan 2 erakusmahai baino gehiago izan zutenek, 2020ko izenburu guztiak + funtsetik 40 izenburu gehienez.
  - Erakusketari berriek edo aurreko urteetakoren baten parte hartu izan dutenek, 2020ko izenburu guztia + funtsetik 20 izenburu gehienez.
- Musika, multimedia eta besteak.
  - 2020ko ekoizpeneko guztia + 20 produktu gehienez funtsetik..

### **Stock harrera eta kudeaketa**

Produktuak antolakuntzari utziko zaizkio gordailu modura zehaztutako epeetan eta lekuan, eta beti ere salmentarako baldintza onetan. Albaran edo emate-agiri bat aurkeztuko dio, produktuen izenak eta kopuruak zehaztuz. Gerediaga Elkarreak ziurtatu egin beharko du.

Utzitako produktuetatik bi ale deskontatu egingo dira antolakuntzaren esku uzteko. Bi ale horiek erakusketarako erabiliko dira eta gero Gerediaga Elkarrearen dokumentategirako zein helburu komertzialik ez duten beste ekintza batzuetarako bideratuko dira.

Albaranean edo emate-agirian akatsik egon ezker, partehartzaileari jakinaraziko zaio zuzentzeko, eta bestela bideratu ez den materialagatik edota kaltetutako materialari dagokion deskontua aplikatuko zaio.

Online dendan saltzeko produktuen stock-a ezin da 10 unitate baino gutxiagokoa izan.

Stock-haustura bat gertatzen denean produktua berritzea borondatezkoa izango da, baina aurretik adostutakoa.

Beraz, partehartzaileak stock-haustura kasuetan horren berri emateko ardura izango du, online dendako salmenta eten ahal izateko.



Azoka amaitzen denean, online dendako eskari guztiak kudeatu direean, partehartzaileak produktu soberakina jaso beharko du eta dagokion diru-likidazioa egingo da.

### **Prezioa eta kostua**

5 euro baino gutxiago balio duen produkturik ez da salgai jarriko.

Partehartzaileak Gerediaga Elkarteari faktura egingo dio saldutako produktuena, salmenta prezioaren %12ko deskontuarekin, zerbitzuaren kostua kontzeptuari lotutakoa.

Azokao partehartzaileen arteko koprodukzioetan, eurek erabaki beharko dute antolakuntzak nori eskatu beharko dion stock-a eta saldutakoaren likidazioa nori egingo zaion.

### **Eroslearen eskubideak eta itzulketa politika**

Azokaren behin-behinekotasuna kontuan hartuta, Gerediaga Elkartek ez du konpromisorik hartuko arazoia edozein dala itzulitako produktua aldatu edo/eta ordezkatzeko. Baina, itzulitako produktuaren zenbatekoa bueltatuko zaio.

Partehartzaileak itzulitako materiala hartzeko konpromisoa izango du, eta ekoizpen akatsik izan ezker, fakturatik deskontatuko zaio.

## **7.ARTIKULUA – ONARTUTAKO PRODUKTUAK**

Online dendan saltzeko aukera izango dute, ondoren aipatzen diren eskakizunetara egokitzen diren produktuak:

### **7.1. LIBURUAK ETA ALDIZKARIAK.**

- Zabalkunde lanak (historia, politika, artea...)
  - Euskaraz edo elebidunak (Euskara hizkuntzetako bat)
  - Edozein hizkuntzatan, euskal gaia bada
- Literatura lanak (eleberria, poesia, entsegua...)
  - Euskaraz edo elebidunak (Euskara hizkuntzetako bat)
  - Jatorrizko bertsoa euskarazkoa denean, beste hizkuntza batzuetara itzulita dauden lanak.
  - Edozein hizkuntzatan, idazlea/k euskaldunak badira eta Euskal Herrian girotuta badago.

### **7.2. MUSIKA.**

- Kantuen heren bat euskarazkoak dituzten lanak.
- Erabat melodikoak diren diskoetan, euskal musikariaren sorkuntza lanak eta/edo interpretazioak onartuko dira.



### 7.3. MULTIMEDIA.

- Euskarazkoak edo elebidunak (Euskara hizkuntzetako bat).
- Ahozkotasunik edo testurik ez dutenen kasuan, euskal sortzaileen lanak onartuko dira.

### 7.4. BESTE BATZUK.

Gerediaga Elkartek euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin honako materialeak ere onartuko ditu:

- *Papertegia*. Agendak, egutegiak, postalak eta pegatinak.
  - Euskaraz edo elebidunak (Euskara hizkuntzetako bat)
  - Euskal Herriko ikonografia edo argazkiekin
- *Mahai-jokoak eta joko didaktikoak*.
  - *Euskaraz edo elebidunak*. (Euskara hizkuntzetako bat).
- *Panpinak*. Euskal kulturako pertsonaien errepresentazio direnean.
- *Produktu-sortak*. *Elementu nagusi modura euskarazko liburu, disko edo multimedia duenean*.

Halaber, **Gerediaga Elkartek Azokan aurkeztutako produktuen egokitasunari buruz ebatzi ahal izango du edozein unetan.**

## 8. ARTIKULUA - ESKARIEI BURUZKO ERABAKIA

Azokan parte hartzeko eskariak aurkeztu ahal izateko epea amaitu ondoren, Gerediaga Elkartek eskariei buruzko ebazpenak hartuko ditu, eta banan-banan jakinaraziko dizkie eskatzaileei, onartuak izan baldin badira, eta katalogoaren fitxa beteta dagoen edo daturik falta den.

Onarpenaren jakinarazpenak, merkataritza kontratazio egoera irmoa eragingo du.

Onartuak izan ez diren edo, antolakuntzak aurkeztutako ekoizpenaren parte bat onartu ez duen kasuetan, hiru egun baliouduneko epea egongo da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, ebazpen horren aurkako helegitea Gerediaga Elkartean aurrean aurkeztu ahal izateko. Helegitea idatziz aurkeztu beharko da, horren oinarri diren arrazoiak adieraziz eta bidezkoak izan daitezkeen frogak aurkeztuz. Aipatutako epearen barruan helegiterik aurkezten ez bada, partaideak Gerediaga Elkartek hartutako erabakia onartzen duela ulertuko da.

## PARTE HARTZAILEEN ESKUBIDEAK

### 9. ARTIKULUA - ESKUBIDEAK

Partaideek promoziorako hurrengo eskubideak dituzte:



- ✓ *Katalogoa eta online salmenta.* Urteko ekoizpenak eta adostuta funtsa webgunean bilaketa egiteko aukerarekin.
- ✓ *Norbere produktuen aurkezpenak eta promozioak* modu birtualean egiteko aukera. Horretarako, online katalogoko fitxan aurkezpen ikus-entzunezko labur bat jartzeko aukera izango du.
- ✓ *Playlist.* Musikari dagokionez, Spotify bitartez eta webgunean zabalkudea eginez, urteko nobedadeak bidaltzeko aukera. Euskara hutsezkoak edo letra gabeko kantuak bakarrik onartuko dira.

## PARTE HARTZAILEEN BETEBEHARRAK ETA ERANTZUNKIZUNAK

### 10. ARTIKULUA - PARTE HARTZAILEEN BETEBEHARRAK

Partehartzaileek, azokaren funtzionamendu egokirako, hurrengo betebeharrak izango dituzte:

- Parte-hartzaile bakoitzak sinatutako adierazpena edota ziurtagiria aurkeztu beharko du, azokara dakarren material guztia behar bezala desinfektatu dagoela adieraziz.
- Durangoko Azokan salgai izango diran produktuen informazioa katalogoan jasotzea, antolakuntzatik adierazitako epeetan. Bete ezean, online dendan ez da salgai jarriko.
- Urteko ekoizpenaren bi ale Gerediaga Elkarteari ematea. Aleak erakusteko erabiliko dira eta, ondoren, Gerediaga Elkartearen funts dokumentalean sartuko dira, edo bidezkoak iritzitako helburu ez komertzialetara bideratuko dira. Ale biak online dendarako ekarritako stock-etik deskontatuko dira.
- Online salmentarako produktuak antolakuntzatik jakinarazitako egun eta ordutegian aurkeztea eta batzea.
- Azokaren araudia betetzea eta Gerediaga Elkartea eskatzen dion informazioa ematea, Azoka aurretik zein Azokak irauten duen bitartean.

### 11. ARTIKULUA - ERANTZUNKIZUNAK

Partehartzaileek hurrengo erantzunkizunak izango dituzte:

- Online salgai jarriko diren produktuak baldintza egokian aurkeztea..
- Ezarritako epeetan produktuak batzea.
- Stock-a berritzea borondatezkoa izango da. Baina horrela erabaki ezker, ahalik eta arinen eta antolakuntzarekin adostutako eran egin beharko dute.
- Partehartzaileek Durangoko Azoka barruan egiten duen jardueratik aplikagarri zaizkien lege eta araudiak betetzeko erantzukizuna dute.

## JURISDIKZIOA

Gerediaga Elkartea, Durangoko Azokako antolatzaile nagusi modura, araudi honetan jasota ez dagoen guztiari buruz erabakitzeko eskumena izango du.

Araudi honen baliozkotasunarekin, interpretazioarekin edo burutzapenarekin erlazioatuta planteatu daiteken edozein zalantza edo gatazka ebazteko, Durangoko epaitegiak eta epaimahaiak izango dira eskudunak, aplikagarri izan daitekeen beste edozein foru baztertuz.